

Beldartxo lagunkina

Beldartxo bat sortu da egun, pentze batean.
Arroltze ttipi ttipi batetik atera da.

Zein aise ibiltzen den belar luzeen artean!

Bere denbora guzia jaten iragaten du.
Oroz gaineretik gustukoak ditu hosto berde goxoak.

Halere aspertua da. Beti bakarrik izatea ez zaio
laket.

-“Lagun bat aurkitu behar dut enekin jostatzeko!”,
ari da bere baitan.

Katalingorri ederrari galdegiten dio: “Nahi duzuia
enekin jostatu?”

“Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, itsusiegi zara!”
erantzuten dio katalingorriak.

Orduan, beldartxoak bere bidea segitzen du belarren
artetik eta urrunago doa.

Xinaurri beltzari galdegiten dio :

- “Nahi duzuia enekin jostatu?”
- “Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, luzeegi zara!”
ihardesten dio xinaurriak.

Orduan, beldartxoak bere bidea segitzen du belarren artetik eta urrunago doa.

- Ipurtargi argitsuri galdegiten dio: -“Nahi duzuia enekin jostatu?”
- “Nik, zurekin jostatu? Segur ezetz, ilunegi zara!”
erantzuten dio ipurtargiak.

Orduan, beldartxoak bere bidea segitzen du belarren artetik eta urrunago doa.

Zinez marmutxa horiek ez dira enekin zintzoak! Nik ere nahi nuke izan dotore, eder eta dirdiratsu! -
pentsatzen du beldartxoak bere baitan tristeki.

Negarrez hasten da gaixoa:

- “Nehork ez du enekin jostatu nahi. Ezin dut bakarrik jostatu!
Hola baldin bada, ene xokoan egonen naiz eta kito.”

Zuhaitz baten gainera igaten da. Adar luze baten
puntaraino
ibiltzen da eta hantxe berean gordelekua antolatzen
du.
Kusku bat eraikitzen du.
Ondotik, kuskuaren barnean kukutzen da.

Ixo! Han dago borobilkatua! Lokartu da!

Adarraren azpian, lili bat sortzen ari da. Hasten da
handitzen... handitzen... eta irekitzen.

Zein polita den lilia! Zein koloretsua den!

- Hela ! Badea norbait hemen! Ez egon barnean!
Atera zaitez!
Udaberria da, egun eguzkitsua dugu! - dio liliak
oihuka.

Liliaren oihuek gure beldartxoa atzarri dute. To!
kuskua poliki poliki irekitzen ari da.

Lotan zegoelarik eta ohartu gabe, beldartxo
itxuraldatu da.

Ohartu gabe ere, anitz handitu da.
Kuskuaren barnetik jalgitzen da,
biziki handiagoa eta ezin ederragoa...
Pinpirin bat bilakatu da.

- Egun on! - dio liliak - udaberria da, eguzkiak
berotzen du eta goxo da kanpoan egotea. Nahi
duzua enekin jostatu?"
- "Bai, gogotik! - ihardesten dio pinpirinak - plazer
handia egiten didazu."

Lagun onak dira orain lilia eta pinpirina.
Beti elkarrekin ikusten dira, bata bestearen
inguruan,
firuri firuri, airean dantzan ari.

Pinpirina biziki alaiki bizi da, ez da sekula triste.
Bere lagunaren eskertzeko, arroltze borobil polit
batzuk oparitu dizkio.